

IV. EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve

Aizpea Goenaga
Joetuta

20004

"JOETUTA"

PERTSONAIK:

- ESTITXU, berrogeita bost urtetik gorako emakumea.
- LOREA, Estitxuren laguna eta adin beretsukoa.
- AINGERU, aingeru gazte bat. TABERNARIA ere izango da.

MUNTAIARI BURUZKO OHAR LABUR BATZUK:

Eszenatokian egongo den dekoratua taberna bateko komuna da, eta ikusleen aurrean ispilu baten markoa legoke (kristalik gabea). Eta aktoreek ispiluaren markoa beren burua begiratzeko erabiliko lukete, jenderantz begiratuko dute baina.

Ukitu zoro bat izan behar dute agertuko diren elementuek, antzezlanaren tonuari lagungarri suertatzeko.

Argiek ere joko honi lagundu behar diote. Giro bitxia Sortuz, ez ohikoa.

ESZENA BAKARRA:

Eszenatokia bitxia izango da, taberna bateko komunean daudela adierazi dezaketen elementu pare bat leudeke, baina zehatzegiak izan gabe.

Argiak bat-batean piztuko dira, eta aktoreak eszenategi gainean egongo dira ordurako.

ESTITXU: Begira, ni hementxe bertan eseriko naiz, lehertuta nago-eta. Ai, ezin dut gehiago zutik egon.

LOREA: Zer, gaur ere goiz jaiki zara?

ESTITXU: Ez, normal, zortzitan, baina bart Ane goizeko bostetan etorri da etxera. Eta imajinatuko duzun bezala ordu arte ez dut lo zipitzik egin eta etorri zenean... etorri zen bezala ikusita... gutxiago!

LOREA: Ze etorri zen ba...(edanaren keinua)?

ESTITXU: Bai, eta... (erretakoaren keinua eta begiak galduta dituenaren keinua)

LOREA: Ai, neska...

ESTITXU: Bai, desesperatuta nauka!

LOREA: Beno, gau bategatik ere ez zaitez horrela jarri. Denok egin dugu inoiz parrandaren bat.

ESTITXU: Bai, baina 17 urterekin? Goizeko bostetan eta edana eta fumauta eta pastillatuta etorri??? No me jodas!

LOREA: Hainbeste, e?

ESTITXU: Zuk esango didazu! Eta ez da hori okerrena, ez! Okerrena da egunero tatuaje diferente batekin etortzen zaidala. (*Alabak tatuajeak non dituen erakutsiko du*) Begira, hemen “ying eta yang”. Hemen ilargi bat eta erratza baten gainean sorgina. Gero kokotean eguzki bat.

LOREA: Eskerrak konstelazio osoa egiteagatik eman ez dion, ezta?

ESTITXU: (*Sututa*) hemen “Paulo for ever”. Eta Paulo hori nor zen galdetu nionean... ez zidan ba esan lige bat zela, eta pentsatuko duzun bezala dagoenerako utzita dute, eta “Paulo for ever” aizu... 17 urterekin!

LOREA: Je, je... martxa honetan laurogeirekin zenbat horrelako ote ditu?

ESTITXU: Isildu zaitez faborez! Ze... josita dago!

LOREA: “Amor de madre” ere ba al du?

ESTITXU: “Amor de madre”? “Amor de madre”??!!! Hara horixe bakarrik falta zaiola uste dut. Eta hori nik tatuatuko diot, baina masailekoka! Ai! Zer egin behar dut, e?

LOREA: Ba, lasai hartu neska, pasatuko zaio! Gu ere bere adinean... fu! Denok pasatu gara hortik.

ESTITXU: Bai, baina ez horrela. Nik nire gurasoei ez nien horrela erantzuten, ezta...

LOREA: Tira, seguru kristorenak egin zenituela, baina ahaztu egiten zaigu! Nik behin... 15 edo 16 urterekin, ez dakit nongo festetara joan behar nuela, eta amak ezetz eta nik baietz, eta sekulako liskarra eduki ondoren, gelan giltzapetuta utzi ninduen; badakizu zer egin nuen? Leiho parean zegoen gerezi ondo batera salto egin... eta eziezadazu galdetu nola egin nuen, burua lehertzeko ere! Baina, ni festetara joan nintzen. Pentsa! gero goizeko bostetan guardia zibila ere etorri zen nire bila, eta orduan ere, nik ihes egin nuen. Aste bete etxetik kanpo ibili nintzen, atera kontuak!

ESTITXU: Honbre! Nik behin... lagunen aurrean gidatzen banenkiela bota nuen, eta “fardatzeko” aitari autoa hartu eta han joan ginen zortzi lagun nire aitaren auto berrian, Aldapetako Juxtanekeo petrilaren kontra bere morrisa, Inglaterratik ekarri berria, txikitu nuen arte. Autoa... ezertarako geratu zen! Eta gainera multo ordaindu behar izan zuen, (*Biei barre atakea sartuko zaie*).

LOREA: Ba niri behin amamak sekulako zaplaztekoa eman zidan, munduko minifaldarik modernoena jantzi nuen eta ni pozik baino “kontentugo” kalera nindoala, ia-ia etxeko ataritik alde egitea lortu nuela pentsatu nuenean, atzamar batek kokopetik hartu eta... zer ez zizkidan esan! Okerrena da nire lagun inbidia zen minifaldak tximinian bukatu zuela. Eta orain nire ama berdin dabil: “Soineko horrekin atera behar al du kalera, galtzak arrastaka daramatza... ilea orraztu gabe daukala...”

ESTITXU: Ba, niri hori dena bost axola. Tira, nahiago nuke “moñoña” joango balitz, baina... ! Okerrena ditxosozko “pirzing” eta tatuajeena da. Hemen horrelako eraztun bat eta zilborra ere zulatuta, eta...

LOREA: Eta bekainean egin al du?

ESTITXU: Jakina! Eta gainetik edozer gauza esaten diot eta (*alaba imitatuz*) “aj, ama, ze nazka ematen didazun, utzi bakean” Gainetik NIK ematen diot nazka, aizu, nazka, NIK!

LOREA: Bai, nire semea ere...

ESTITXU: Ez zure semea askoz normalagoa da.

LOREA: Tira, etxetik kanpo izango da! Badakizu zer daukan bere gelan? Pitoi suge bat!

Biak nazka-nazka eginda.

ESTITXU: Aaaatx!!! Ez da izango!?

LOREA: Eta kurtso bukaerako txangora joan zenean, jaten emateko eskatu zidan... ni ia-ia ziplo lurrera erori nintzen, ze... saguak eman behar izaten zaizkio jateko!

ESTITXU: Saguak?

LOREA: Bai, saguak, horrela... bizirik.

ESTITXU: Isatsetik helduta?

LOREA: Bai, neska, bai!

ESTITXU: Eta eman zenizkion?

LOREA: Nikkkk??? Ezta... zoratuta ere! Gero aste bete egon zen hitzik esan gabe, oso haserre, gaixoa goseak hiltzekotan eduki nuelako. Hara, lastima hil ez izana!

ESTITXU: Beno, gero hitz egiten badizu sikiera... ze niri ezta hori ere.

LOREA: Hitz egin? Bai: “..maaa, paga!” eta kitto!

ESTITXU: Ez iezadazu pagarena aipatu, faborez! Aurreko aste bukaeran siestan nengoela, lorik goxoena harrapatzen; eta han etorri zitzaidan Juanjo: “aizu, lotan zaude?” Ai... Eta zer esango diozu? “zenbat paga ematen diozu Ainhoari?” Ta nik ba.. “25€” “jode” “zergatik?” “jope, ba 40 eskatu dizkit” “eta eman egin al dizkiozu?” “Ba, bai, ze esan dit zuk esan diozula ez zenuela sueltorik eta emateko” “Nik eman diot gaur goizean bere paga eta!” Jode... Rumasa kendu bazioten bezalaxe jarri zitzaidan. “Eske neska hori oso gaizki dabil, edukazioa behar du eta esku gogorra eta... eskola partikularretan eta baletako klaseetan gastatu duguna! Eta hau eta bestea eta zuk dena egiten uzten diozu... Nik? . Eta esan nion, ba hemendik aurrera Ainhoa zure kontu goizetik gauera! Ze bronkak! Ze portazo! Lehengo egunean hautsontzi batek nire buru gainean bukatu zuen eta ia orduan esan nuen, bale!

Eta berriz ere, lehen bezala... ze Juanjo ez da ezertaz enteratzen eta pirzin eta tatuajeen bronka

guztiak niretzat! Alabaren haserreak niretzat, eta bere aitarenak ere bai.

LOREA: Ederra txoltoa!

ESTITXU: Hara, nazka-nazka eginda naukate! Gero tartean nire ama.. “aizu Estitxu, etorriko al zara nire bila?” Eta zertarako eta bere lagunaren etxera eramateko. Esan nion har ezazu autobusa. Eta ja, señora nola joango da autobusean. Eta taxia! Halako gastua! Total nik autoa hartzea ez da gastua, eta zertarako nago bestela mundu honetan, baten pirzinak nire burua zulatu, bestearen muturren gainean surfa egin eta amaren taxista izateko ez bada?

LOREA: Badakizu zer? Nire semearen pitoia bidaliko dizut!

ESTITXU: Ba aizu, zirkoa osatzeko falta zitzaidana! Honaino nago!

LOREA: Porrutxo bat nahi?

ESTITXU: Baina... nola lortu duzu?

LOREA: Semeari poltsikotik kendu diot! Dena botata uzten du, jantziak, zapatak... eta ni haren neskame dena jasotzen, ezta? Bere gauzetaz arduratuko balitz ez nizkioke poltsikoak miatuko. Gainera ez zait ba “nire” porrua non dagoen galdezka etorriko, ezta? Ba ale!

Biak barrez hasiko dira eta porru izugarri bat piztuko dute.

LOREA: Ummm ze ederra!

ESTITXU: Eta askotan hartzen al dizkiozu?

LOREA: Ahal dudan guztietan. Lekuz aldatzen ditu, baina... (*bera kontu horietan jakina denaren keinua egingo du*)

ESTITXU: Ai, ze ideia ona! Urteak dira ez nuela horrelako bat erretzen, ai! Nik ere alabari miatu beharko dizkiot poltsikoak.

LOREA: Ba nik uste dut, drogazalea bihurtzen ari naizela. (*Kantari*) “Yo soy drogadicta porque el mundo me ha hecho así...”

ESTITXU: Ba ni alkoholikoa. Aizu, egunean ilusioa egiten didan gauza bakarra, ardo botila bat irekitzea izaten da. Zer nahi duzu? Eta gin-tonikak... mmm, ze bizio!

LOREA: (*Kantari*) “Tan borracho eres tu como yo, que yo como tu, que tu como tu...”

Biak erlaxatuz joango dira eta txoro-txoro barrezka hasiko dira.

LOREA: Imajinatzen duzu gure seme alabek horrela ikusiko bagintuzte? (*Barreak*) zer esango lukete, e?

ESTITXU: Eta gure amek? (*Barreak*) Nireak a zer nolako belarrondokoa emango lidaken.... sentitu dezaket-eta! “Danba! Zoza! Fuste gutxi!”

LOREA: Ala... ala... ala! Joan daitezela denak... po...rruak erretzera! (*Beste barre algara bat*) Denen

artean nazka- nazka eginda naukate! “Albardatu”
koadrila! Eta lehendabizikoa nire senarra!

ESTITXU: Eta baita nirea ere! Eta nire ama, jode,
berrogeita hamar urte beteko ditut eta oraindik ere
etxera noiz etorri naizen eta norekin ibili naizen ez
zait bada kontrolatzen ibiltzen! (*ahoarekin puzkar
hotsa egingo du*)

LOREA: Eta nire semea, bere boa konstriktorra, eta
bere zapata usaintsu eta kiratsuak pikutara!
Honaino naukate eta!

ESTITXU: Ba nire alabak eta bere pirzin eta
tatuaiekin... pixka bat goraxeago!

LOREA: Eta hainbeste errejimen egin beharrak...

ESTITXU: Ba, niri, nazkatzen jarrita badakizu nork
nazkatzen nauen... Rosak, ezin dut eraman! Bueno,
eta Mercedes Mila eta telediarioek! Txin txiri txin...
(*telediario baten musika imitatuz*) ... bakean utzi,
letxes!

LOREA: Horiek eta baita politikoez ere! Hainbeste...
Bush eta Fraga Iribarne, eta... bueno... etxeakoak...
zer esanik ez!

ESTITXU: Eta monarkia! Ze esaten didazu
monarkiaz?

LOREA: Anda y ke...

ESTITXU: Horixe bera! Aire!!!

Biak algara batean ari direla, mutil gazte bat sartuko zaie, ile kizkurrarekin eta hego txiki-txiki batzuk jantzita edo beltzez ere joan daiteke abrigo luze batekin.

AINGERU: Iepa! Kaixo!

Ez diote kasu handirik egingo baina begira geratuko zaizkio.

AINGERU: E... kaixo... Barkatu, zuen aingerua naiz.

Biek arreta handiz begiratuko diote, oso serio, batak buruarekin baietz eta baietz egingo du. Elkarri begiratu eta barrez lehertuko dira.

AINGERU: Zuen bizitzan zerbaiten beharra duzue?

LOREA: Pleno al quince y complementario!

AINGERU: E?

Bi lagunak zoro moduan barrez hasiko dira. Erretakoaren eraginez. Aingeru erabat nahastuta geratuko da.

ESTITXU: Baina zu... nondik erori zara?

AINGERU: Ez, ez naiz goitik erori, e! Ondo azaldu naiz, ezta?

LOREA: Bueno, majo, roillo gutxiago eta zer nahi duzu?

AINGERU: Ba... zuek lagundu.

LOREA: Ba duzu dirurik?

AINGERU: Ez, ez... berez... beste mota bateko laguntza ematera etorri naiz.

LOREA: Prrrr...!

AINGERU: Babes espiritualagoa eskaintzera etorri naiz.

ESTITXU: Horrela... bizipoza eman, eta animatzeko?

AINGERU: Bai.

ESTITXU: Eta ez al dago zu baino pixka bat hola...
(*Goitik behera begiratzuz*)

AINGERU: Nola?

LOREA: Ba gizonagorik, motel! Fundamentu gehiago eta pixka bat...

ESTITXU: ... handiagoa...

LOREA: ... gizonagoa!

AINGERU: Nola gizonagoa? Gizonagoa? Ba...(ez du ulertuko zertaz ari diren eta inuzente-inuzente erantzungo die) Ez.

ESTITXU: Joe! Ezin nerabeengandik eskapatu, aizu! Hau da hau miseria gurea!

AINGERU: Joe! Ui, barkatu, ez iezadazue lana zaildu.
(*Berriz ere jarrera zuzena bereganatzuz*) Ea, zerbait oso berezia eskaintzera etorri natzaizue, zuen bizitza aldatuko duena...

LOREA: Ba nik egia esan (*sexuari buruz*)
“nesesidadea” ba dut, aizu! (*Eta algara bizian hasiko da*)

AINGERU: (*etsitzen hasita*) Aizue, mesedez, ni hona bidali naute, eta zer egin jakingo nuela esan didate, batez ere zuzendu behar nuenek nigan konfiantza osoa edukitzeaz gain, oso pozik egongo zirelako.

ESTITXU: Jodo, pozik ginen zu etorri arte. Baina dena moztu diguzu. Tira, tira, erroilu gutxiago, zuk zer nahi duzu? Zeinek bidali zaitu?

LOREA: Nire senarrak bidali zaitu. Ala gure seme-alaben koadrilakoa zara?

ESTITXU: Ze ez zinen adarra jotzera etorriko, ezta? Bestela...

LOREA: Hara!

ESTITXU: Edo guk egiten duguna miatzen ari zara? E?

AINGERUA: Ez, ez... ni...

Poliki-poliki aingeruaren aurrean jarri eta kontuak aterako dizkiote, arnasa ere hartzen utzi gabe.

LOREA: Kontu gero! Horrelakorik ez gero guri, aditu?

ESTITXU: Txantxa gutxi gurekin!

AINGERU: Bale, bale... joe... nik... baina nik ez dudala... benetan, ez dakit nola esan, nik... (*erdi negarrez*)

ESTITXU: Ez, orain ez hasi negarrez, mesedez! Nahikoa dugu! Ale, ale... (*handik bidaliz*) zure arazoak etxean konpondu majo! Beste honek eta guk sorbalda nahiko bustita daukagu-eta!

LOREA: Bai, aizu, nik bizipoza behar dut, baina bestelakorik ezta pentsatu ere!

AINGERU: Ez, baina, ez dakit zer espero duzuen, ni helburu jakin batekin...

LOREA: Bai, ezagutzen ditut zure kalañakoak bai! Hara, ni ez nauzu engainatuko, zuk ikusi gaituzu, eta pentsatu duzu zure artean “hara, bi tuntun padera... barre pixka bat egin behar dut haien kontura”. Ba, majo, oso nahastuta zaude. (*Estitxuri*) Eta zuk begiratu poltsan ea zerbait falta zaizun, ze... gaur egun ezin duzu ezta zure itzalaz fidatu!

Estitxu poltsan begiratzeko hasiko da.

LOREA: Bai, bai... ezin duzula itxuraz fidatu, eta zuk ere ez! Ze zuk igual uste zenuen gu erraz engainatuko gintuzula, baina, “aixkiria” gu ez gara atzo jaiotakoak, eta...

ESTITXU: Non dago nire txartela?

LOREA: Zer? Txartela falta zaizula?

ESTITXU: Begira, hemen eramaten dut, eta... ez dago!

AINGERUA: E, e, e! Aizue, ezetz, nahastuta zaudetela, ni zuek laguntzera etorri naiz, zuentzat aukera paregabe bat... nik ez dizuedala...

LOREA: Atera poltsikotik nire lagunaren txartela derrepentean!

AINGERUA: Ezetz, ba! Aingeru bat naizela. Aingeru bat. Ez naiz lapurtzera etorri. Ezetz. Hara, ez edukitzeagatik ez dut ezta poltsikorik ere, ikusten?

LOREA: Ba atera ipurtzulotik nahi baldin baduzu, baina atera oraintxe bertan! (*Estitxuri*) Deitu larrialdietara.

AINGERUA: Jo... ni aingeru bat naizela, faborez!

LOREA: Isildu zaitetz, gizona, isildu zaitetz! Aingeru eta aingeru ondo! Txotxolo!

ESTITXU: (*Telefonoz*) Egunon, aizu, begira hemen... (*jarrera erabat aldatuz*) ... hemen.... hemen, je, je... Agur (*eskegiz*).

LOREA: Zer?

ESTITXU: Ba... hemen daukadala... izan ere, nahi gabe diru-zorroan gorde beharrean, poltsikoan gordeko nuen eta...

LOREA: A, bai? (*Hasieran ez du zer egin jakingo, baina berehala erreakzionatuz, lehengo jarrera*

zorrotzean hitz egingo dio aingeruari) Berdin dio!
Orain desagertu ez bazaizu, hemendik pixka batera
desagertuko zen. Ze “pieza” hau horretara etorri da-
eta. Ezta?

AINGERU: Ez, benetan. Ezetz! *(Bere buruari)* Behin
etorriko eta ez didazue sinetsi behar, ai ama...
faborez... nahi duzuen lortuko dizuet... Denon
mesederako da. Aukera hau ez da bi aldiz gert...

LOREA: *(Kolkotik heldu eta kanpora bidaliz)* Ospa!
Alde hemendik! Txitxilikuatro!

*Biak isilik geratuko dira, aurrera begiratu, gero elkarri
begiratzuz, behin eta berriz, ezer esan gabe. Buruari bueltak
ematen ari direla ikusiko dugu. Azkenean, Loreak isiltasuna
hautsiko du.*

LOREA: Eta egia balitz?

ESTITXU: Zer?

LOREA: Benetan aingerua balitz?

ESTITXU: *(Harri eta zur)* Baina... benetan ari zara...
ala gaur denon artean ni eretzeko ahaleginetan
zabiltzate?

LOREA: Ai, neska... geroz eta argiago ikusten dut,
ez dakit...

ESTITXU: *(bere onetik aterata)* Baina zer demontre
da, ez dakizuna?

LOREA: Atx!... eta egia balitz? Eta benetan aingeru
bat balitz, laguntzera etorri zaigun aingeru bat?

ESTITXU: (*hitzik ere ez zaio aterako eta zoratuta dagoenaren keinua egingo dio*) Tira...

LOREA: Ez dakit, zergatik ez? Jende asko dago aingerutan sinisten duena...

ESTITXU: Bai, neska, tamalez jende asko dago zoratuta. Gehiegi!. Eta mesedez, ez ezazu hainbeste aldiz “ez dakit” esan, nire onetik ateratzen nauzu eta.

LOREA: Jesus, nola zauden!

ESTITXU: Egongo ez naiz ba! Psikopata batek aingerua dela esaten digu, (*aparte bat eginez*) ai... porruaren efektua joan zait... eta gainera zuk sinistu egiten diozu... eta zer gehiago, e?

LOREA: Ba, jakina sinesten dudala, zergatik ez? Zuk ez duzu sinesten, eta nik bai. Zeinek du arrazoia?

ESTITXU: Zoaz antzarrak ferratzera!

Biak apur batean pentsakor geratuko dira.

LOREA: Eta pentsa ezazu segundo batean, aingeruarena egia balitz...?

ESTITXU: Eta segi kontu ber-berarekin! Hara, ez nazazu nire onetik atera, mesedez! Nahikoa dugu aingeru zahar horren kontuarekin. Ederki izorratu digu parranda.

LOREA: Ez iezadazu garrasirik egin, burua lehertzeko zorian daukat eta!

ESTITXU: Baita nik ere.

LOREA: Efektua joan zaigu, eta orain...

ESTITXU: Orain faktura, “gaiztoak” izateagatik, ezta? No me jodas! Zu ez zaude burutik sano! Edo porruak uste baino zulo handiagoa egin dizu buruan.

LOREA: Ze porru eta ze porru-ondo!

ESTITXU: *(Loreari begirada zorrotza eta erdi kantari)*
Orain “aspirina hartu eta segi aurrera” *(Alde eginez)*
Aiiii

LOREA: Nora zoaz?

ESTITXU: Etxera.

LOREA: Ez, ez, ez nazazu bakarrik utzi, izugarrizko zorabioa daukat. Ezin dut mugitu ere egin.

ESTITXU: Zergatik ez diozu zure aingeru horri deitzen?

LOREA: Aaaai.

ESTITXU: Azalduko da.

LOREA: Nola azalduko dela? Baina zer esaten ari zara? Estitxu, itxoin! Estitxu!!

Loreak Estitxu geldiaraziko du.

ESTITXU: Zeeer?

LOREA: Ekarri iezadazu gin-tonic bat.

ESTITXU: Zer esaten ari zara?

LOREA: Gasolina behar dut.

ESTITXU: *(Poltsatik petaka bat atereaz)* Tori.

LOREA: Jode, ondo prestatuta zaude.

ESTITXU: Hala behar da!

LOREA: Badakizu, aingeru hori agertuko balitz zer eskatuko nioken?

ESTITXU: Zer?

LOREA: Ez dakit.

ESTITXU: Ba nik, nire alabak etxetik alde egitea. Bai. Eta nire senarrak.

LOREA: Senarrak ere bai.

ESTITXU: Bai. Alde egin dezala. Ezer esan gabe. Hanka! Ez daukat papelak-eta egiteko gogorik. Ihes egin dezala eta kito. Eta ama ere bai. Ospa denak.

LOREA: Ez da ideia txarra. Eta zergatik ez duzu zuk alde egiten.

ESTITXU: Etxea edukita? Nik alde egin behar dut? Joan daitezela denak pikutara! Ni etxean geratuko naiz. Ezer jaso gabe. Platerak erabili eta zakarontzira boteaz biziko nintzateke.

LOREA: Ez dizut sinesten.

ESTITXU: Bai.

LOREA: A ze gaua daramagun. Tira, goazen.

ESTITXU: Ez, ezin dut.

LOREA: (*Berriz ere kezkatu*) Zer duzu?

ESTITXU: Ezin dut pausu bat ere eman.

LOREA: Aupa, zuk ahal duzu.

ESTITXU: Ezetz ba, zapata hauek merkeak erosi nituen eta sekulako mina egiten didate, gogor-gogorak dira, eta ai... ezin dut gehiago.

LOREA: Zapatak min egiten dizutela? Hori al da dena?

ESTITXU: Zer ba, gutxi al da hori. (*bere onetik aterata*) Zapatak min ematen dutenean, benetan min... ezin duzu aurrera egin. Oinak dira eusten gaituzten zutabeak, eta dorre handiagoak erori dira zutabe horiek, pipia txiki batzuk jan dituztelako. Hara, urrutirago joan gabe San Pedro basilika.

LOREA: Benetan? Ez nenkien erori zenik.

ESTITXU: Erori erori... ez. Baina zorian egon... Eta zer esaten didazu beste basilikaz? San Mamesi buruz.

LOREA: Hori ez da basilika hori katedrala da.

ESTITXU: Eta zer axola dio, zein da katedrala eta basilikaren arteko diferentzia, e? Ba al dakizu?

LOREA: Ba... bata bestea baino handiagoa dela?

ESTITXU: Ideiarik ere ez, eta hala ere gauza bati modu batean deitzen diogu hala erakutsi digutelako. Eta beste egunen batean, aldrebeseko kontuak esaten hasiko dira eta orduan ere kasu egin behar. Ez dut ezertan sinisten!

LOREA: Mina ere psikologikoa omen da.

ESTITXU: Bai eta zera ere! (*Ironiaz*) Eta aingeruak ba dira!

LOREA: Dударik ere ez. Ai... eta ez iezadazu gogora erazi! Galdu dugun aukera galduta... Behin etorriko Aingeru bat, behin eta orduan ezin sinistu aingerua zenik! Nola da posible? Proba egin sikiera.

ESTITXU: Ai, zertarako atera ote dut berriz ere gaia?

LOREA: Ez, ez duzu zuk atera. Ez dut ahaztu. Ezin dut burutik kendu. Hor daukadan obsesio bat da. Nire bizitzaren arrazoia bilakatu du. Aurkitu egin behar dut. Nahastu naizela esan. Beregan sinesten dudala eta beste aukera bat eskatu.

ESTITXU: Baina...

LOREA: Zuk uste duzu, porroarena kontatzeak samurtu egingo duela, ala kontrakoa egingo du.

ESTITXU: Tira, porruarena “eximiente” bezala erabiltzea ere!

LOREA: Ez zaizu bidezko iruditzen beraz. Ez dakit, arrazoia izango duzu, baina hain gaztea zenez, iruditzen zait, pertsonalki berak ulertuko nindukeela, ez duzu uste?

ESTITXU: Aizu, guapa, aingerua nik ere ikusi dudala, e?

LOREA: Zer? A, bai, bai... jakina.

ESTITXU: Hara hor ba, ze badirudi zuri bakarrik agertu zaizula, eta zuri bakarrik hitz egin dizula. Bioi agertu zaigu eta bioi egin digu desioaren proposamena.

LOREA: Bai, baina zuk nola ez diozun sinistu.

ESTITXU: Tira, ez diot sinistu, momentuan, ez digulako inolako ziurtagiririk erakutsi. Eta aingeru bat horrela ibiltzea ere, ez zait batere serioa iruditzen. Edozein ager daiteke zure aurrera eta aingerua dela esatera etorri, baina hori ez dago ondo, pentsa zer nolako istilua sor lezaketen.

LOREA: Bai, baina niri behin bakarrik agertu zait, eta orduan ez diot kasurik egin. Ze tuntu.

ESTITXU: Lasai, aurkituko dugu.

LOREA: Bai, zera, orain AINGERUA bilatzen hasiko gara, tira... tira!

Biak atera egingo dira, eta handik segundo batera berriz ere ostera sartu egingo dira.

ESTITXU: Aiiii, ai, ai... ezin dut gehiago. Hara hementxe eseriko naiz. Zeinek esan, aizu, pasatzen ari naizenak pasatzen ari naizela, eta ditxosozko oinetako batzuengatik... minaren minez egotea ere! Ba mundua gera dadila, ni ez naiz hemendik mugitu ere egiteko gauza. Eta eror daitezela piramideak eta zatitu itsasoak, baina ni kieto hemen! Ai... hau da miseria, egunkaria ezin irakurri bizi gara, eta gero zapata merke takoidun batzuk erosteagatik... hara! Kaka!

LOREA: Baina, Estitxu, ezingo dugu bizitza osoan komun honetan geratu!

ESTITXU: Oinetako minez nago, eta ezin zaitut jarraitu. Agur.

Loreak aurpegia komun gainean jarri eta negarrari ekingo dio, oso negar zaratatsua eta pasatua.

ESTITXU: Zer duzu?

LOREA: A ze suerte txarra! Aingerua azaldu eta...

ESTITXU: Hara, zapata buru gainera botako dizut. Dramarik ez, mesedez! Joe... Faborez, gorrotatzen

ditut horrelako numeroak. Ezin dut eraman. Tira, potxola “numerotxurik” ez! Ez! Ez!

Estitxuk nerbioak galduko ditu.

LOREA: (*Aurpegia erakutsiz eta irribarretsu*) Trala, la-la, la-larila! Je, je, adarra jo dizut. Antzerkia egiteko balioko nuke, ezta?

ESTITXU: Baina zu txoratuta zaude? (*Altxatuz*)

LOREA: Aja, baina sinistu duzu. Pasa zaizu oinetako mina?

ESTITXU: Ez!

LOREA: Makina inperfektuak gara.

ESTITXU: Makinak bagina, konpondu gintuzkete.

LOREA: Zer beharko zenuke zuk konpontzera?

ESTITXU: Oinak.

LOREA: Ez ez... zure bizitzatik, zer?

ESTITXU: Dena. (*Pentsakor*) Gaizki egin dugu

LOREA: Bai. Gaizki egin dugu! Aingeruari kasu egin behar genion...

Une horretan, ate joka hasiko dira.

TABERNARIA: Iep, barkatu... zerbait gertatzen

zaizue? Hemen jendea komunera sartzeko zain dago.

ESTITXU: Ba sartu daitezela!

Tabernaria sartuz. Tabernaria aingerua izango da, baina orain tabernaria da, eta ez du aingeru izan denaren memoriarik. Loreak ikusiko du lehendabizi, eta mutu geratuko da, aho zabalik.

TABERNA: Aizue, ez zarete ezer sartzen arituko, ezta? Nik hemen ez dut horrelakorik nahi, gero bestela nagusia etorri eta kale gorrian jarriko nau. Bai, zuei bost axola, baina ni nagusiak edo beste horiek harrapatzen naute eta...

ESTITXU: Aiba, la ostia!

LOREA: Aaaaaa.... (*“bere” aingerua dela ikusirik, korrika batean harengana joango da*) Aingeru... aingerutxo, barkatu, barkatu lehen egin dizuguna, barkatu benetan. Hara, porrutxo bat erre dugu eta... bai, badakit ez genukeela erre behar eta nahi duzun guztia, “eximente” moduan kontatzen dizut, baina mesedez, mesedez, sinisten dut zukan... zer egitea nahi duzu?

TABERNARIA: (*Aluzinatuta*) Joe... ba hemendik alde egitea. Eta Pello naiz.

LOREA: A, ia, bai. Ondo. Pello aingerua.

TABERNARIA: (*Gogor*) Aizue, barkatuko didazue, baina hemen porruak eta horrelakorik ez! Nik ez dizuet ezer kendu nahi...

LOREA: (*Moztuz eta urduritasunagatik txoriburu samar*) Ez, ez... kar, kar, kendu ez! Kendu ez! Kar, kar... Ai! Pello, zu ez zara ba San Pedro izango? Ala beste Pello-Pello zara?

TABERNARIA: (*Estitxuri*) Ondo al dago?

LOREA: Aizu, porru bat erre dut, e te, te, duela asko, baina ez da hori. Badakizu zer nahi dudan?

TABERNARIA: Zer?

LOREA: (*Mozkor negar tuntunez, eskatu behar desioa ezin aukeratu*) Aaaa, ez dakit! Ez dakiiiiittttt!

TABERNARIA: Joe... ez iezadazue lana zaildu. Ala, atera hemendik, faborez. Ez natzaizue ezer berezia eskatzen ari. Mesedez zoazte zuen etxera.

LOREA: (*Aparte elkartzeko eskatuz*) Txit, txit... etorri, etorri (*Tabernaria beregana joango da*) Hara, nahi baduzu gero gu biok bakarrik elkartu eta hitz egin dezakegu “gure” asuntoaz, ez? (*Aurpegian keinu bat eginez*) Aingerutxu!

TABERNARIA: (*Ezin ezer ulertu*) Ba... hara, nik ez daukat ezer esatekorik “gure” asuntoaz, zeren ez daukat inolako asunto berezirik zurekin. Tira, kafe bat prestatuko dizut, ondo kargatuta...

LOREA: Nola ezetz? Eta lehen egin didazun eskaintza... ? “Zuen bizitzan zerbaiten beharra duzue?” “Ondo azaldu naiz, ezta?” E? E? Gogoratzen?

TABERNARIA: Nik ez dizut inoiz halakorik esan eta ez zaitut inoiz ikusi. Eta mesedez, utzi bake...

ESTITXU: Aizu, barkatu muturra sartzea. Nik egia esan ez dut, zure asunto horretan asko sinisten, beno, batez, baina... hala ere, zuk zerbait egiterik bazenu, nik badakizu zer nahiko nukeen? Etxetik denek alde egitea! Denek! Alabak, senarrak, amak, denak desagertu daitezela. Posible bada behintzat, e?

LOREA: Ze txaketera zaren!

ESTITXU: Aizu, bada ezpada ere, ez?

TABERNARIA: *(Ume txiki batzuei hitz egiten ari balitzaie bezala)* Baina, zergatik ez duzue zuek biok hemendik atera, autoa hartu eta alde egiten. Goxogoxo, alde. Hanka!

LOREA: Hori da! Hori nahi dugu. Alde! Baina zuk zer proposatzen diguzu guk alde egitea? Eta ezin duzu aldrebes egin.

TABERNA: Nola aldrebes?

LOREA: Ba gu etxean geratzea!

TABERNA: Baina ez zaudete etxean! Hau ez da zuen etxea!

ESTITXU: Aizu, tuntunak ez gara! Horrenbeste ere badakigu. Hara bestea! Berak esan nahi duena da...

LOREA: (*Moztuz*) A! Badakit zer esan nahi duzun. Telma eta Louis bezala alde egiteko? Hori esaten diguzu?

TABERNA: Ez! Nik ez dut... Beno, bai, bai! Hori da. Tira, Telma eta Louis bezala, alde!

ESTITXU: Ia. Baina nik ez dut autoa hartu eta nire buruaz beste egin nahi. Egizu zuk nahi baduduzu! No te jode.

TABERNARIA: Joe, joe, joeeeeeee... (*Desesperaturik eta keinu handiak eginez alde egingo du*)

LOREA: Joe?! Eta nola uste du honek gaudela gu, e?

ESTITXU: Joe?! Badakizu zer ematen didan amorru handiena? Ba nahiz eta porrot eta zisko eginda egon, beti ba dela zu baino okerrago dagoen norbait, eta joeeee, horrekin kontsolatu behar omen da.

LOREA: Gu baino okerrago?

ESTITXU: Ba bai, emakumezko jaio, ondo izorratuta bizi eta hala ere, beti pentsatu behar duzu: emakumea izan, eta beltza bazina? Eta ghetto batean hazitakoa, e? Orduan zer?

LOREA: Orduan: Izorratuta! Ondo izorratuta. Dios, eta gu zer? Gu ez gara izorratuta bizi?

ESTITXU: Gu? Ez. Gu... JOETUTA!

Bat batean, sirena hotsa entzungo da. Bi emakumeak elkarri begiratuko diote.

LOREA: Ai, ama. Zer, izorratutakoen kategorian sartzekotan?

ESTITXU: Akaso bai!

Kolpetik argia itzali egingo da. Iluna. Eta aktoreak eszenatokitik desagertu egingo dira. Berriz argia piztean eszenatokia hutsik egongo da.

AMAIA